PATXI ZUBIZARRETA

IDAZLEA

“Nik sentitutako zirrarak irakurleari ere eragin diezaioke”

AURTENGO Peru Abarka album lehiaketan saritua izan da *Beroki Gorria* liburua. Istorioaren egileak, “emoziotik sorturiko kontakizuna” dela nabarmendu du.

Zelan sortu zen liburu honen ideia?

Bolada batean oso gertu izan nuen Espainiako gerra zibilaren gaia, hortik sortu zen *Hiru gutun Iruñetik* nobela eta dokumental baterako gidoia. Egia esan, ez nuen uste beste ezerk berriro harrituko ninduenik, baina ustekabean jakin nuen Habana itsasontziak, bidaietako batean, 4.000 neskamutiko eraman zituela Ingalaterrara. Kanpamenduan jakin zutenean Bilbo erori zela, etsita, denak negar batean hasi ziren, eta gehienak dendetan babestu ziren. Berriro ere gerraren izugarrikeria harekin harrituta, jakin nuen Luis Cernuda poeta kanpamendu hartan laguntzaile ibili zela, eta *Niño muerto* poema hunkigarri bat eskaini ziola bertako mutiko bati. Emozio horiek eraman ninduten narrazio labur hau idaztera.

Liburu hau zergatik gomendatuko zenuke?

Beharbada, pentsatzen dudalako haur literatura haurrek ere irakur dezaketen generoa dela. Horregatik benetan uste dut gai honek, kontamolde itxuraz erraz horrekin, gure historiaren beste leiho bat zabal dezakeela haur, gazte nahiz nagusientzat. Horri gehitzen badizkiogu Yolanda Mosqueraren marrazki zoragarriak, haren ikuspegi pertsonal ederrarekin, eta Ibaizabalen edizio zaindua, esango nuke istorioa poema baten antzera irakur daitekeela, pausatuki, sakon, delikatuki, eta nik sentitutako zirrarak irakurleari ere eragin diezaiokeela.

Aurtengo Peru Abarka album lehiaketa irabazi duzu. Zure ustez, zer saritu dute?

Ez dakit... Julie Otsukaren *Buda en el ático* nobela izugarri gustatu zitzaidan, eta haren kontamoldea aukeratu nuen nire istoriorako; hau da, pluraleko lehen pertsona: joan ginen, sentitu genuen... batez ere neskatilen ahotik, eta horrek sortzen duen xarmarekin, beroki gorriak daukan sujerentzia-indarrarekin, agian epaimahaiak ere sentituko zuen emozio eta zirrara hori.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA

IDAZLEA

“Protagonista guztiak irudimen handiko haurrak dira”

IDAZLE arabarra erantzun ezin hobea izaten ari da haur eta gaztetxoen literaturan egin duen lehen ahaleginarekin. *Nur eta banpiroen dantza* da NUR bildumako ale berriena.

Zelan sortu zen bilduma honen ideia?

Gure alaba, suhia eta Nur biloba Txinara bizitzera joan ziren. Haien falta izugarri igarri nuen eta bilobarentzat ipuin bat idaztea erabaki nuen, Nurren amak nire bilobarentzat ipuin bat noiz idatziko nuen askotan galdetu zidala aprobetxatuz. Horrela abiatu zen NUR bilduma.

Hasiera batean, Nurri buruzko liburu bakarra idaztea zen asmoa. Dagoeneko, 12 ale osatu dituzu. Espero zenuen bilduma horrenbeste luzatzea?

Egia esan, ez nuen antzeko erantzunik itxaroten, inondik inora. Beharbada bere arrakastaren arrazoia protagonistak umeak direla izango da. Gainera, ez dira nolanahiko haurrak, guztiek irudimen handia baitaukate.

Liburu hau zergatik gomendatuko zenuke?

Autore batentzat zaila da bere liburua gomendatzea. Ez dakit ba... Ume arruntei buruzko abentura erakargarria delako? Gertatzen dena protagonistaren irudimenaren fruitua delako? Dibertituta delako? Hainbat arrazoi aurkitu ditzaket.

Literaturan protagonistaren papera duten neskak gutxiengoa dira oraindik. Hezkuntzara begira, garrantzitsua da gauzak aldatzen joatea?

Pertsonalki, ni ez naiz inor hezten saiatzen, baina, era berean, ondo dago irakurleek ikustea neska bat protagonistatzat duten istorioak, eta halakoak gero eta ugariagoak izatea, noski. Garrantzitsua dela uste dut. Gainera, oso polita izan da ikustea nola mutilak ere Nurren abenturak irakurtzera ohitu diren, astiro-astiro.

NOBEDADEAK

- ‘Jon zikinaren anaia’
- ‘Ahatea, antzara, txerria eta otsoa’
- ‘Hiru txerritxoak eta otsoa’
- ‘Txorimaloa’
- ‘Amonatxoa’
- ‘Zuria izan nahi zuen elefantea’
- ‘Ilpurtargia’
- ‘Tulipa txikia’
- ‘Hurriztiko txita’

MINI KLASIKOAK saila

- ‘Odisea’
- ‘On Kixote’
- ‘Guilliver Liliput-en’
- ‘Altxorraren uhartea’
- ‘Romeo eta Julieta’
- ‘Artur errege gaztea’
- ‘Frankenstein’
- ‘Tirant zuria’

- ‘Munduaren itzulia 80 egunetan’
- ‘Notre Dame-ko konkorduna’

AUSKALO saila

- ‘Zestoako loroa’

MANDOLINA saila

- ‘Klarisa Ikerrondo eta ume lotsatiaren kasua’

NUR saila

- ‘Nur eta banpiroen dantza’

IBAIZABAL:

AKORDEOIA bilduma

- ‘Lotara’
- ‘Jatera!’

BIKOTEKA bilduma

- ‘Aurpegi maitagarriak’
- ‘Isats jostalariak’

AURKITU bilduma

- ‘Ondo lo egin, panpina!’
- ‘Gora mundu guztia!’
- ‘Munduko oparirik ederrena’

GAZTETXO bilduma

- ‘Jauregiko sekretua’
- ‘Txopo’

IPUIN TXOROAK bilduma

- ‘Oilo txikia’
- ‘On egin!’
- ‘Gozogilea eta eulia’

HARTZ eta UNTXI bilduma

- ‘Untxiren ohitura txarrak’

MATXINSALTO bilduma

- ‘Txokolatezko pastela’

OTTOLINE bilduma

- ‘Ottoline eta azeri morea’

CHRIS RIDDELL

- ‘Marrazki bat eguneko’

ORIOL ARLOTE bilduma

- ‘Iokoz kanpo!’

ZONBIGUNEA bilduma

- ‘Misioa New Yorken’

EKIN bilduma

- ‘Xirei’

ALBUMAK

- ‘Ilartxo’
- ‘Nils Holgerssonen bidaia miresgarria’
- ‘Beroki gorria’

TXALAPARTA:

- ‘Erantzuna haizean dabil’
- ‘Gatza’
- ‘Musua’
- ‘Odola’